



2016/05/21

GOIZUTRAIL

MENDI LASTERKETA

Goizutrail mendi lasterketaren III.edizioa

2014an abiatutako ekimena indarra hartzen ari da, eta Goizutrail mendi lasterketaren hirugarren edizioa izango dugu datorren maiatzaren 21ean. Bi auzotan banatutako ibilbide zoragarrian, korrikalariak distantzia motza edo luzea egiteko aukera izango dute. Orain arteko edizioetan parte hartu dutenek lasterketaren edertasuna eta antolakuntza txukuna nabarmendu dituzte.



**GOIZUTRAIL
LASTERKETAREN
HIRUGARREN
EDIZIOA**

**IBILBIDE BAKARRA:
BI DISTANTZIA.**

10 KM EDO 25 KM

**1636 METROKO
DESNIBELA**

5 HORNITZE PUNTU

**SARIAK ETA
OPARIAK**

**HAMAIKETAKO
BIKAINA!**

GOIZUTRAIL

Goizueta
(Nafarroa)

www.goizutrail.blogspot.com


2016ko maiatzak 21

SARRERA

Goizutrail mendi lasterketa Goizuetako herritar talde batek 2013an abiatutako ekimena da, aurtan hirugarren edizioa izango duena. Asmo xumearekin, mendi lasterketek gure inguruan duten indarra baliatuz, herriari bizia eman nahi diogu, eta Euskal Herrian gure herriko paraje eta mendiak ezagutzeko aukera ezin hobea eman parte hartzaileei eta proba ikustera bertaratzen direnei. Lasterketaren bidez inguruko mendi eta paisaia ederrak ezagutzera eman nahi ditugu jendartearen begietara: Eneko Elorri, Mandoegi, Errekaleku....Bide batez, gure arbasoen aztarnak bisitatzeko aukera izango dute korrikalariak, bidean hainbat cromlech edo harrespila topatuko baitituzte.



PERFILA



IBILBIDEA


2016. urtean bi ibilbide izango ditugu Goizutrailen hirugarren edizioan.

Goizuetako plazan (154 m.) hasiko dira bi ibilbideak, Aitasemegi auzora igoko dira korrikalari guztiak xenda estu batetik. 4 kilometrotan xenda eta pistetatik barrena 680 metrotara dagoen Eneko Elorriko bizkarrera igoko dira, eta hemendik herrira jaitsiko dira Espideko sorotik pasatuz.

10 kilometroko ibilbide motza egin behar dutenek herrian bukatuko dituzte lanak.

25 kilometroko ibilbide luzea aukeratzen dutenek, ordea, herritik Mandoegiko gailurrera igo beharko dute, 1.045m. Ondoren Mandoegiko gailurretik jarraituko du ibilbideak eta bukatzeko berriz ere herriko plazara jaitsiko da. Desnibela 1636 metrokoa da eta ibilbide guztia mendiko xenda pista eta larrean zehar izango da.

Ibilbidea behar bezala markatua egongo da eta bertan edateko eta jateko puntuak izango dira. Parte hartzaile guztiek istripu aseguru bat izango dute.



IBILBIDE MOTZA:

PILATUTAKO DESNIBELA: 631 METRO

DESNIBEL POSITIBOA (IGOERAK): 631 METRO

DESNIBEL NEGATIBOA (JAITSIERAK): 631 METRO

DISTANTZIA OSOA: 10,56 KILOMETRO

GEHIENEZKO GARAIERA : 667 METRO (ENEKO ELORRI)

GUTXIENEO GARAIERA: 145 METRO (GOIZUETAKO PLAZA)

PARTAIDE KOPURUAREN MUGA : 50 partaide gehienez.

IRTEERA ORDUA ETA LEKUA: 9.00etan Goizuetako plazan.

HELMUGA ORDUA (gutxi gorabehera): 10:00etan, lehen korrikalaria.

HELMUGA NON: Goizuetako plazan.

HORNIDURA GUNEAK:

ENEKO ELORRI (4.KM): Ura eta janaria.

IBILBIDE LUZEA:

PILATUTAKO DESNIBELA: 1636 METRO

DESNIBEL POSITIBOA (IGOERAK): 1636 METRO

DESNIBEL NEGATIBOA (JAITSIERAK): 1636 METRO

DISTANTZIA OSOA: 25,20 KILOMETRO

GEHIENEZKO GARAIERA : 1045 METRO (MANDOEGI)

GUTXIENEO GARAIERA: 145 METRO (GOIZUETAKO PLAZA)

PARTAIDE KOPURUAREN MUGA : 150 partaide gehienez.

IRTEERA ORDUA ETA LEKUA: 9.00etan Goizuetako plazan.

HELMUGA ORDUA (gutxi gorabehera): 11:10etan, lehen korrikalaria.

HELMUGA NON: Goizuetako plazan.

HORNIDURA GUNEAK:

ENEKO ELORRI (4.KM): Ura eta janaria.

GOIZUETA (10.KM): Ura eta janaria.

BIORSORO (13.KM): Ura

MANDOEGI (15.KM): Ura eta janaria

ERREKALEKU (19.KM): Ura eta janaria

GOIZUETA (25.KM): Ura eta janaria.

1.- EGUNA eta LEKUA

“GOIZUTRAIL” mendi lasterketa maiatzaren 21ean jokatu da, 9:00an hasita, eta irteera eta helmuga Goizuetako plazan izango da.

2.- IBILBIDEAK

Bi ibilbide izango dira, bat 10 kilometrokoa (631 desnibela) eta bestea 25 kilometrokoa (1.636 desnibela). Bi Ibilbideak Goizuetako mendietan zehar izango dira. Ibilbide motza luzearen lehenengo zatia izango da eta herrian hasi eta herrian bukatuko da. Neurketak ez daude homologatuta.

3.- PARTEHARTZEA

Proba egiteko egunean MOTZA egiteko 16 urte eta LUZEA egiteko 18 urte baino gehiago dituzten atleta, mendizale eta kirolari guztiek dute proban parte hartzeko aukera, federatuta egon edo ez, baina gehienez ere 200 lagun onartuko dira. Araudi honetan adierazitako guztia onartu eta zehaztutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

4.- KATEGORIAK

(lasterketako egunean duten adina)

Gizonezkoak zein emakumezkoak

- 18 urte baino gehiago dituztenak: helduak
- 45 urtetik gorakoak: beteranoa Gizonak
- 40 urtetik gorakoak: beteranoa Emakumeak

5.- IZEN-EMATEA

Izen emateko aukera aldeztu aurretik www.herrikrosa.eus orrialdean izango da.

Egunean bertan ere aukera izango da lasterketak hasi baino 30 minutu lehenago arte.

Korrikalariak proba aurreko egunetan bere izena parte-hartzaileen artean azaltzen dela ziurtatu beharko du.

Ordainketa probaren aurreko egunetan egin beharko da.

Korrikalariak ziurtatu beharko du, halaber, zerrendan izenaren ondoan ordaindu izana ageri dela. Zerrendan ordaindu gabe daukala ageri bada, ordainketaren agiria aurkeztu beharko du lasterketaren egunean edo bestela egun horretako prezioa ordaindu beharko du.

6.- PREZIOA

IBILBIDE LUZEA (25km.) aldeztu aurretik

Orokorra: 20 €

Goizuetarra*: 15 €

IBILBIDE MOTZA (10 km.) aldeztu aurretik

Orokorra: 15 €

Goizuetarra*: 10 €

Egunean bertan izena ematen dutenak dagokiona baino 5 € gehiago ordaindu beharko ditu.

***Goizuetartzat hartuko da herrian bertan erroldatua dagoena edo bertan bizi dena**

Zenbateko horrek ondokoa bermatzen du: proban parte hartzeko eskubidea, aseguruia, antolakuntzak parte hartzaileentzako atondutako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, opariz betetako poltsa, hamaiketakoa eta antolakuntzak probarako lor ditzakeen sarien zozketan parte hartzeko aukera.

7.- SEINALEZTAPENA

Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da, kartel adierazleekin, behar diren lekuetan antolakuntzako pertsonekin eta begi bistan egongo diren balizaje-zintekin. Kilometro-erreferentziak ere ibilbide osoan jarriko dira.

8.- KONTROLAK

Probaren luze-zabalean antolakuntzak bi kontrol gune jarri ditu, eta bertatik pasatzea ezinbestekoa izango da, gune hauetan egingo baitira arauzko igarotze kontrolak. Korrikalaria egiten ari den denbora kontuan hartuta antolakuntzak erabaki dezake parte hartzailearen bat probatik baztertzea.

9.- HORNIDURA

Bost hornidura postu prestatuko dira. Postu hauetan produktu energetiko eta freskagarriak eskainiko zaizkie parte hartzaileei: ura, fruta, edari energetikoak, e.a

10.- ARAU-HAUSTE ETA ERRETIRATZEAK.

Antolakuntzako arduradunek korrikalariak probatik baztertzeko ahalmena izango dute ondorengo kasu hauetan: probako arauak hausten dituztenean, finkatutako ibilbideari zehatz-mehatz lotzen ez direnean, arauzko dortsala ondo ikusteko moduan ez daramatenean, antolatzaileek esandakoari jaramonik egiten ez dotenean, edota gainontzeko korrikalariekiko kiroltasunez jokutzen ez dutenean. Baztertua edo kanporatua den parte hartzaile orok gertuen duen kontrol gunean eman beharko du bere dortsala, eta antolatzaileek agindutako moduan utzi beharko du proba.

11.- SARIAK

IBILBIDE LUZEA (emakume zein gizonezko)

Senior

1. SARIA:TXAPELA + 150 €
2. SARIA: 100 €
3. SARIA: 50 €

Beteranoak

1. SARIA: Goizuetako produktuez osatutako saski eder bat.

Goizuetarrak (Goizuetan erroldatuta edo bertan bizi direnak)

1. SARIA: 100 €

IBILBIDE MOTZA (emakume zein gizonezko)

Senior edo Beteranoak (ez dira desberdinduko)

1. SARIA: Goizuetako edozein tabernatan afarria bi pertsonentzat

Goizuetarrak:

1. SARIA: Ximon harategiak eskainitako txuleta pare bat.

12.- SAILKAPENA

Bi ibilbideak herrikrosak kronometratuko ditu eta eginiko denbora eta sailkapen ofizialak herrikrosa.eus webgunean jarriko dira.

13.- DORTSALEN BANAKETA

Dortsalak lasterketaren egunean bertan banatuko dira goizeko 7:30atik aurrera.

14.- INGURUGIROA

Lasterketa, bere zatirik handiengan, edertasun natural handiko parajeetatik igarotzen da eta, hau horrela izanik, ingurunea ahal beste zaintzeko eta zaborrak kontrol- guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie parte hartzaile guztiei.

Hornitze guneetatik gertu zaborrontziak ezarriko dira.

Oinarrizko arau hau betetzen ez duen korrikalari oro probatik kanpo utziko da.

15.- OSASUN-LAGUNTZA

Antolakuntzak sorospen eta salbamendu-zerbitzuak atonduko ditu ibilbideko puntu estrategikoetan. Era berean, dutxak, komuna eta aparteko beharren bat duten kirolariei premiazko laguntza emango dieten medikuak ere izango dira helmugan.

16.- SEGURTASUNA

Antolakuntzak, proba ordezeko ibilbide batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko, eta, eguraldiak hala eskatzen badu, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.

17.- LAGUNTZA EZBEHARRETAN

Parte hartzaileek betekizun izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea, eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.

18.- ERANTZUKIZUNA

Antolakuntzak bere gain hartuko du ibilbidearen barruan geratzen den edozein istripuren ardurua, baina ez istripu hori korrikalarien zabarkeriak eraginda gertatzen bada. Parte hartzaileen jabetza pertsonalei dagokienean ere ez du ardurarik izango. Horiek gordetzeko kontsigna zerbitzu bat izango da helmugan bertan. Parte hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsoneri eragindako kalte ororen inguruko erantzukizuna.

19.- ARGAZKIAK ETA IRUDIAK

Antolakuntzak eskubide osoa du lasterketan ateratako argazki eta irudi guztiak, proba bera ezagutzera emateko erabiltzen diren hainbat hedabideetan erabiltze-ko (kartelak, triptikoak, prentsa oharrak...)

20.- NORBERAREN DATUAK

Lasterkari guztiak izena ematerako momentuan emandako datu guztiak erabili ahal izango ditu antolakuntzak, beti ere bakoitzak hala erabakitzen badu behintzat. Horretarako bete beharreko hainbat arlo izango dira izen emate orrietan, derrigorrezkoak batzuk, eta aukerakoak besteak.

-----SEGURTASUNA ETA OSASUNA-----

- Ibilbidean suhiltzaile boluntarioak egonen dira laguntza guneetan eta medikuak helmugan.
- Ibilbide osoa egongo da balizatuta, eta kilometro bakoitza zenbatuta eta markatuta.
- 80 bat lagun ariko dira lanean, dena ongi joan dadin.
- Kirol probaren amaieran, dutxak jarriko dira kirolari guztientzat

SARIAK

IBILBIDE LUZEA (emakume zein gizonezko)

Senior

- 1.SARIA:TXAPELA + 150 €
- 2.SARIA: 100 €
3. SARIA: 50 €

Beteranoak

1. SARIA: Goizuetako produktuez osatutako saski eder bat.

Goizuetarrak (Goizuetan errolatuta edo bertan bizi direnak)

1. SARIA: 100 €

IBILBIDE MOTZA (emakume zein gizonezko)

Senior edo Beteranoak (ez dira desberdinduko)

1. SARIA: Goizuetako edozein tabernatan afaria bi pertsonentzat

Goizuetarrak:

2. SARIA: Ximon harategiak eskainitako txuleta pare bat.

**Sariak ez dira pilatuko.*

***Sari banaketaren inguruan sortu daitekeen edozein gorabeheraren aurrean, antolakuntzak erabakiko du momentuan zer irtenbide eman.*

-----EGITARAUA ETA ORDUTEGIA-----

2016/05/21

7:30 Dortsalen banaketa Udaletxe azpian

9:00 Lasterketaren hasiera

10:00etatik aurrera: Ibilbide motzeko lehen sailkatua helmugan.

12:00: Hamaiketakoa herriko plazan

12:30ak aldera: Sari banaketa eta oparien zozketa.

Goizueta Nafarroako Ipar-mendebalden kokatutako herria da. Goizutrail lasterketa Urumea ibaiak banatzen dituen ekialde eta mendebaldeko auzoetan zehar burutuko da.

Goizuetara etortzeko:

Bizkaiatik: AP-8 autopista hartu Donostiarako noranzkoan eta Hernaniko irteerara iritsi arte jarraitu. Hernaniko jarraibideak jarraitu Karabelgo gasolindegira iritsi arte, eta bertan GI-3410 (Goizuetako errepidea) hartu. Behin Nafarroan sartuta, NA-4150 errepidea jarraitu.

Lapurditik: A-63 autopista hartu Donostiarako noranzkoan, eta Gipuzkoan sartzean AP-8 autopista jarraitu. Donostiako 2. saihesbidea hartu eta Hernaniko irteera hartu. Hernaniko jarraibideak jarraitu Karabelgo gasolindegira iritsi arte, eta bertan GI-3410 (Goizuetako errepidea) hartu. Behin Nafarroan sartuta, NA-4150 errepidea jarraitu.

Goierri eta Tolosaldeatik: N-1 autobidea hartu Donostiarako noranzkoan eta Andoainera iristean A-15 autobidea (Urumeako autobia) jarraitu eta Goizuetako irteera hartu. Bertan GI-3410 (Goizuetako errepidea) hartu. Behin Nafarroan sartuta, NA-4150 errepidea jarraitu.

Arabatik eta Sakanatik: A-10 autobidea hartu Iruñerako noranzkoan, eta Irurtzunera iristean A-15 autobidea hartu Donostiarako noranzkoan. Leitzako irteera hartu, eta Leitzako biribilgunean Goizuetako irteera hartu eta NA-170 errepidea jarraitu. 5 km-tara, Basa Kabin, NA-4150 errepidea (Goizuetako errepidea) hartu.

Iruñea eta Nafarroa hegoaldetik: AP-15 autopista hartu Donostiarako noranzkoan. Leitzako irteera hartu, eta Leitzako biribilgunean Goizuetako irteera hartu eta NA-170 errepidea jarraitu. 5 km-tara, Basa Kabin, NA-4150 errepidea (Goizuetako errepidea) hartu.

Bortziriak, Baztan eta Malerrekatik: N-121a edo N-121b autobidea hartu Doneztebe arte, eta bertan NA-170 errepidea (Leitza aldera) hartu. Basa Kabira iristean, NA-4150 errepidea (Goizuetako errepidea) hartu.

DISTANTZIAK KILOMETROTAN:

Iruñea:

- Distantzia: 70 kilometro
- Denbora: ordu bat

Donostia

- Distantzia: 33 kilometro
- Denbora: 35 minutu



KONTAKTUA

www.goizutrail.blogspot.com

www.facebook.com/goizutrail

www.twitter.com/goizutrail

goizutrail@gmail.com

Goizuetako Udala

Umore Ona elkarte

Goizuetako herritarrak

IZEN EMATEA

Izen ematea www.herrikrosa.eus helbidean egin daiteke maiatzaren 20a arte.

Egunean bertan, lasterketa aurretik, Goizuetako plazan izena emateko aukera ere egongo da.

LAGUNTZAILEAK



DULCIFROST S.L. - Ibalondo Industriagunea 19, 20120 Hernani - Telefonoa 94.55.00.75



-----NON LO EGIN-----

Goizuetako plazan bertan, Zubimuxu aterpea dago eta bertan 30 lagunentzako lotarako tokiarekin, 5 logelatan banatuta.

Bi gela: 10 plazakoak bakoitza bere bainugela eta dutxarekin

Gela bat: 6 plazakoa bere bainugela eta dutxarekin

Bi gela: ohe bikoitzekoak bainugela eta dutxa konpartituarekin



ZUBIMUXU ATERPEA



Herriko plaza 10. 31754 Goizueta



948 51 40 06



663 85 85 02



zubimuxuaterpea@hotmail.com



zubimuxugoizueta.blogspot.com



www.facebook.com/ZubimuxuGoizueta

